

Errenta aitortpena (109 erredua)

2017ko errenta aitortpena Internet bidez aurkez dezakezu.

1) Bi modutan bete dezakezu:


- datuak eskuz sartuz.
- autolikidazio proposamena jaitziz¹. Horretarako, proposamenaren onarpen kodea eduki beharra dago.

2) Aitortpena bete ondoren, Internet bidez aurkez dezakezu, baina, horretarako, kontraste datu hauetako bat eskatuko zaizu:

- azken 4 urteetako baten errenta aitortpenaren kuota.
- proposamenaren onarpen kodea.

3) Horrez gain, aitortpena aurkeztu eta gero, aitortpena ireki dezakezu frogagiriak aurkezteko, aurkeztu behar izatekotan, zein egoeratan dagoen kontsultatzeko, edo, prozesatu ez bada, datu hauek aldatzeko:

- emaitza itzultzekoa bada: kontu korrontea.
- emaitza ordaintzekoa bada: ordainketa kopurua eta ordaintzeko era (helbideratuta, ordainketa-gutuna, ordainketa-pasabidea).

Tramite horiek guztiak egiteko, AITORPEN ZIRRIBORROAK apartatura jo behar da, eta aitortpenerako ekintza hau hautatu: **IKUSI KONTRASTE BIDEZ AURKEZTUTAKO AITORPENA**  .

Frogagiriak ERANTSITAKO DOKUMENTUAK fitxatik aurkeztu behar dira, DOKUMENTUA ERANTSI botoiaren bitartez.

Aitortpena aurkeztu eta gero aldaketaren bat sartu nahi baduzu ordeko aitortpen bat edo aitortpen osagarri bat aurkezteko, AITORPEN ZIRRIBORROAK apartatuan aitortpena bikoiztu beharko duzu, eta aldaketak aitortpen bikoiztuan egin.

¹ Gogoan izan autolikidazio proposamena telefonoz edo internet bidez ere onartu daitekeela modu errazagoan, baldin eta:

- emaitza zuzena bada.
- emaitza zuzena ez bada eta, horregatik, datu batzuk aldatu behar badituzu, hala nola errentamenduen diru-sarrerak edo kuota sindikalagatik, dohaintzengatik edo ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik aplikatzen diren kenkariak.